

## **Foru Aldundiak 36 milioi euro baino gehiago inbertituko ditu 35 kilometro bizikleta bide berri eta 370 kilometro bide berde eraikitzeko**

*Gaur goizean aurkeztu den Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Planaren helburua Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarea eta Ibilbide Berdeen Sarea bultzatzea eta sustatzea da*

**Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 23a.** Ingurumen eta Hirigintza Sailak Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Planaren xehetasunak aurkeztu ditu gaur Batzordean. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak eta Foru Gobernuak dokumentu hori onetsi ostean, orain balidatze fasean dago Arabako Batzar Nagusietan, foru arau bihur dadin.

Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan sektorialean aurreikusita dago foru erakundeak 36 milioi euroko inbertsioa egitea datozen hamabi urteetan, 35 kilometro bizikleta bide eta 370 kilometro ibilbide berde eraikitzeko, bai eta egungo sarearen mantentze eta hobetze lanak egiteko ere.

Josean Galera Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru aldundiak azaldu duenez “Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Planaren helburua da Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarea eta Ibilbide Berdeen Sarea bultzatzea eta sustatzea. Plan horrek hainbat ardatz egituratzen ditu lurraldean zehar, eta mugikortasun jasangarria eta emisiorik gabekoa sustatzen du. Eta, ildo horretatik, klima aldaketaren aurka borrokatzeko foru estrategiarekin (Klima Araba 2050) bat datozen jarduketak ere egin behar dira”.

Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialak motorizatu gabeko mugikortasun jasangarria planifikatzen du, eta,aldi berean, Arabako natura, paisaia eta historia eta kultura ondarea nabarmentzen du, konektibitate ekologikoa eta paisajistikoa indartuz eta ingurune naturala errespetatzen duten hurbiltzeko eta gozatzeko moduak sustatuz.

Dokumentu horretan, bi sare elkarren osagarri eratzen dira, eta horrela, lurralde osoa egituratzen duen bizikleta ibilbideen hiriarteko sarea ehuntzen da:

- Bizikleta bideen sarea: eguneroko mugikortasunarekin lotuta dago, eta, beraz, 10 km baino gutxiagoko distantzia aurreikusten du.
- Ibilbide berdeen sarea: jarraitua eta egituratzailea da, eta aisialdiari eta turismoari lotua, eta, beraz, ez du distantzia mugarik.

Lurraldea antolatzeko tresna hori mugarri garrantzitsua da Arabako Foru Aldundia duela zenbait urtetik hona lurralde historikoan motorizatu gabeko mugikortasuna bultzatzeko egiten ari den apustuan. Horren barruan sartzen dira gaur egun azpiegituretan (katalogatuak eta katalogatze fasean eta planifikatuak) dauden 1.300 km baino.